


Kinpart⁴⁵

www.hautzaroikastola.net

Hautzaro
ikastolako
aldizkaria

2009ko
ABENDUA





txinpart⁴⁵

www.hartzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hartzaro informatzen	3
Gurasook jakin dezagun.....	14
Euskararen txokoa	20
Hatzak bete lan.....	26
Gu ere kazetari	39
Nahaste borraste	42

ARGITARATZAILEA

Hartzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

azko ekainean gurasoei egindako galdeketa ikastolan argitaratzen dugun Txinpart aldizkari hau interesgarria iruditzen zitzaizuen galdetzen genizuen; jasotako emaitza hau izan da: 1etik 4 arteko puntua-zioan 3,25eko balorazioa eman diozue. Hau guretzat datu garrantzitsua izateaz gain motibagarria ere bada.

Ilido honetatik erronka berriak jarri dizkiogu gure buruari: edukia mantenduko dugu oinarrian, eta itxura goitik behera ez bada ere, aldatzeko saiakera egin dugu.

Proiektu hau, Txinpart alegia, oso tresna garrantzitsua bihurtu da gure ikastolan ikastolako lana eta familien arteko komunikazioan, gure arteko zubi lana egiten du. Eta ez ikastolako familiarekin soilik, herritarrek ere aldizkari honen bidez ikastolako berri zuzena jasotzen duzue; eta harreman hau mantendu nahi dugu.

Besterik gabe, oraingo ale hau ere zuen gustukoa izango dela itxaro dugu.

Haurtzaro ikastolako partaide guztion izenean,
Gabon zoriontsuak guztiontzat:

Eguberri eta urteberri on!

Ibilaldiak eta ekintzak

Haur Hezkuntza 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HH1	Urriak 7	Mendibilgo Txara	Elkarrekin goiza pasatzea
HH1	Urriak 30	Gurutze	Gaztainak biltzea
HH2	Urriak 5	Arane Baserria	Etxe motak ikustea
HH2	Urriak 16	Txillida-Leku	Txillidaren obra ezagutzea
HH2	Urriak 28	Listorreta eta Egiluze sagardotegia	Sagardoaren prozesua ezagutzea
HH2	Hilabete Bukaeran	Liburutegia	Liburutegia ezagutzea
HH3	Urriak 8	Hondarrabia	Itsasontzian ibiltzea
HH3	Urriak 30	Sorondo	Udazkenaz gozatzea

Lehen Hezkuntza 1-2

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH1	Irailak 18	Donostiako Nazioarteko Zinemaldia	Zinemaldian parte hartzea eta ondo pasatzea
LH1	Irailak 30	Munuandi	Mailako harremanak indartzea
LH1	Urriak 28	Luberri	Dinosaurioen gaia lantzea
LH1	Azaroak 25	Arrikruz	Lehen gizakien gaia lantzea
LH2	Irailak 18	Donostiako Nazioarteko Zinemaldia	Zinemaldian parte hartutze eta ondo pasatzea
LH2	Urriak 09	Karrikako Haur Eskola	Zein txikia jaio nintzen gaia lantzea eta mailako harremanak sendotzea
LH2	Urriak 20	Postetxea	Eskutitzaren ibilbidea ezagutzea eta guk egindako postala bidaltzea
LH2	Urriak 30	Hondarribia	Erdi Aroko gaia lantzea eta mailako harremanak sendotzea
LH2	Azaroak 26	Itsas-Gela	Boga-Boga Marinela gaia lantzea

Lehen Hezkuntza 3-4

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 3-4	Irailak 18	Donostiako Nazioarteko Zinemaldia	Zinemaldiaz gozatzea
LH 3-4	Irailak 25	Urkabe	Zikloko harremanak lantzea
LH 4	Urriak 16	Oarsoaldea (Pasaia, Lezo, Erreterria eta Oiartzun)	Eskualdea ezagutzea
LH 4	Urriak 19 eta 6 Azaroak 2 eta 1	Zaharren Egoitza	Belaunaldien arteko trukea egitea
LH 4	Azaroak 20	Jantokian (Edson DBH 1.eko ikasleak Venezuelaren inguruan hitz egin zigun)	"Ameriketara joan nintzen" gaiaren amaierako proiektua burutzea
LH 4	Azaroak 23	Tutoretza saioan (Willy gurasoak Inken eta Cuscoren inguruan hitz egin zigun)	"Ameriketara joan nintzen" gaiaren amaierako proiektua burutzea

Lehen Hezkuntza 5-6

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH 5	Irailak 25	Altzibar - Ergoien	Ziklo hasierako harremanak lantzea
LH 5	Urriak 21	Zientzia Museoa, Donostia	Txanelan landutakoa Planetariumean sakontzea
LH 5	Urriak 26	Musika Txokoa (Ergoien)	Euskal Herriko instrumentuak ezagutzea
LH 5	Abenduak 10	Gernika + Guggenheim museoa	Gernikako Junta-etxea eta Guggenheim museoa ezagutzea
LH 6	Irailak 25	Zumaia	Flysch-a ezagutzea eta elkarrekin ongi pasatzea
LH 6	Urriak 8	Chillida lekua	Chillidaren obra ezagutzea plastikan lantzea
LH 6	Urriak 29	Luberri	Ingurunea lantzea
LH 6	Abenduak 4	Tolosa	Txotxongiloen jardunaldietan parte hartzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4			
MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
DBH 1. zikloa	Irailak 23	Elorrietako kaskoa- Karrika	Ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotzea
DBH 2. zikloa	Irailak 23	Aldura-Igantziko soroa-Erreterria	Ikasle eta irakasleen arteko harremanak sendotzea
DBH 1	Urriak 29	Miramongo Zientzia gunea (Donostia)	Gizarte eta Natur arloko gaiak sakontzea
DBH 2 (Zientzi tailerreko ikasleak)	Irailak 28	Arditurriko meategia	Hainbat tailer frogatzea
DBH 2	Urriak 29	Legazpiko Mirandaola - Zerain	Teknologia eta gizarteko gaiak uztartzea
DBH 1. zikloa	Abenduak 3	Ikastola	<i>Esne zopak emanaldia</i>
DBH 1-2-3-4	Azaroak 13	Donostiako Artzain Onaren plazako karpa	Zientzia eta Teknologia astean parte hartzea
DBH 3	Urriak 13	Erreterria: Herri kirol topaketak	Eskualdeko ikastolekin harremanak izatea
DBH 3	Urriak 19	Berde-berde proiektuaren aurkezpena Donostiako Zientzia gunea	Aurreko urtean egindako lanaren onespina jaso eta proiektu berriak ezagutzea
DBH 3A	Azaroak 6	Villabona: Herri kirol topaketak, finala	Gipuzkoako ikastolekin harremanak izatea
DBH 3	Abenduak 1-2-4	Ikastola	Euskara: motibazio saioak
DBH 3	Abenduak 3	Ikastola	<i>Esne Zopak emanaldia</i>
DBH 4 (3 ikasle)	Irailak 29	Atom by atom kongresua	Nobel saridunekin jardutea
DBH 4	Urriak 2-3	Bidasoa ibaia	Piraguako ikastaroa egitea
DBH 4	Urriak 16	"El gran Torino" filma ikusi	Etikako arloan gaiak sakontzea
DBH 4	Azaroak 23-24-25	Ikastola	Euskara: motibazio saioak
DBH 4	Azaroak 30	Biologia-geologia ikasleak: Zumaiara Teknologiako ikasleak: Niessen Arteko ikasleak: Oiartzungo patrimonio artistikoa	Arlo hauetan sakontzea
DBH 4	Abenduak 1	Oiartzungo udaletxea	Hitzaldia: Hiesa
DBH 2. zikloa	Abenduak 3	Ikastola	Emanaldia

Aldura ko ibilaldia



Jokin Eizaguirre eta Gorkatz Perez
DBH 4

Urtez urte egin ohi den bezala, DBHko ikasturte hasieran mendi irteera bat egin dugu. DBH 1. mailan KMK 06ko ibilbidea egin genuen. Bigarren mailan, berriz, Elorrietako kaskoa ezagutu genuen. Hirugarrenean Pagoagalarra egin genuen irteera eta, DBH 4. mailakook, azkenik, Aldurara joan gara.

Goizeko 8:00etan Haurtzaro ikastolatik irten eta Tronpeo (Don Pedro) maldatik barrena Iturriotz auzora jaitsi ginen. Bidean, Makutxo baserria eta Oiartzun ibaia ikusi genituen. Iturriotz auzoko Ozentzio kalean gora gindoazela Dorre Etxea, Mikelene etxea... ikusi genituen. Behin Etxenagusira iritsitakoan, eskuineko bidea hartu eta Estrataburu baserriraino iritsi ginen. Bertan ezkerreko bidea hartu genuen.

Estrataburutik Amazkar baserritik barrena, gorantz beti, bidegurutze batekin topo egin genuen eta, berriro, ezkerreko bideari ekin genion. Laster batean Urdakonera iritsi ginen. Berriro ere bidegurutze batekin topo egin genuen. Guk zuzen jarraitu genuen eta berehala Eldotzekin egin genuen topo. Eldotzen zentrala, karobia eta errota daude.

Pistari jarraituz berehala eskuinera hartu genuen bidezidor batetik. Malda igo genuen eta, nahiko azkar, ataka pasa ondoren, Borda baserria zenarekin topo egin genuen. Atsedean hartu eta handik aurrera marka berdeek gidatu gintuzten.

Igantziko soroan egin genuen hamaiketakoa, inguruarekin gozatuz. Izan ere bertan ikus daiteke Oarsoaldeko bailara: Oiartzun herria, Erreenteria,





Pasaia, Lezo... Mendiak ere inguruan: Aldura txiki, San Markos, Jaizkibel, Ulia, Urkabe... eta Pasaiaiko portua bertatik bertara. Inguruko baserriak ere ikusgai: Aldura, Altamugarri goikoa eta Altamugarri behekoa...

Nahi zutenek hamaiketakoa egin ondoren, Aldura mendira igotzeko aukera izan genuen. Gutxi batzuk joan ziren, eta joan zirenek bidean elurzulo bat ikusi zuten.

Tontorra zanpatu ondoren, eta berriro ikusmenaz dastatuz, behera abiatu ginen. Berriro Igantziko sorora joan ginen. Handik itzulera Igantzi mendiaren eskuineko aldea hartuz egin genuen. Maldan behera, berehala iritsi ginen Borda baserrira eta bertatik Sarobe errekarara. Berehala, Eldotz makinetxera iritsi ginen.

Jarraian Urdakone izeneko geltokia ikusi genuen eta berriro bidegurutze batekin aurkitu ginen. Hemen eskuinera doan bidetik goruntz egin genuen eta Oiartzabaleta izeneko parajera iritsi ginen. Bertatik Oiartzungo behatoki eder batekin topo egin genuen. Handik eskuinetara eginez berehala ginen Iturriotzen. Ondoren, Tronpeoko malda hartu eta 13:00etan Haurtzaro ikastolara iritsi ginen. Azkenean, guztira 14km-ko zirkuitua egin genuela esan dezakegu.





Euskal kultura sustatuz,

Ekudorrera laguntza

Gure ikastolako curriculu-
maren ardatza Euskal
curriculum izanik, gure
herriko kultura sustatzeko
antolatuak ditugu ekintza
osagarrien garrantzia
azpimarratu nahi dugu
lerro hauen bidez.



Olentzero egunean kantuan ateratzeak helburu honekin bat egiten du, eta egun honetan jasotzen dugun diruarekin bigarren helburu bat ere lantzen dugu: elkarbizitza eta solidaritatea.

Ikasturtero 450 euro inguru biltzen ditugu ikasle guztion artean, eta diru hau Ekuadorrera bidaltzen dugu: Joxe Mari apaizari bidaltzen diogu bertako herritarrei laguntzeko. Eutsi diezaiozun guztiok ekimen garrantzitsu honi!



Bizikidetza proiektua



Ikasturte honetan bukatuko dugu gure bizikidetza proiektua. Gure alderdi ahulak eta sendoak identifikatuak ditugu eta hobekuntza plana ere nahiko aurreratua dugu.

Ikasturte honetan helburu hauek ditugu:

- BIZIKIDETZA BEHATOKIA osatu: guraso, ikasle eta langileen ordezkaritza batek osatuko du talde hau, eta ikastolako bizikidetza giroaren jarraipena egingo du.

- Ikasleen eskubide eta betebeharren araudi berriaren komunikazioa egitea komunitate osoari.
- Formakuntza. Ikasturte honetan ere ikasle, irakasle eta gurasoekin formakuntza saioak egingo ditugu. Gaia hau izango da: IKASTOLAKO BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK. BITARTEKARITZA.

Lan hau bigarren hiruhilean egingo dugu.



Uxue del Rio, Ander Gaztelumendi eta Naiara Benítez
DBH 4

Haurtzaro ikastolako hiru ikasle

Nobel saridunekin

Irailaren 28tik 30era Atom by Atom biltzarrak nanozientzian aritzen diren goi mailako ikerlarien hitzaldiak eman ziren Donostian. Hiru Nobel saridun izan ziren bertan. Eta Nobel saria eskuratzeko aukera sendoak dituzten beste gutxienez bi zientzialari ere izan ziren hizlarien zerrendan. Adibidez, Carlos Bustamante. Perutar zientzialariak molekulak banaka manipulatzeko lan egingen du.

Kongresu honetan ikasleentzat topaketa antolatu zuten eta bi Nobel sariekin (Heinrich Rührer, Sir Harold Kroto) hitz egiteko aukera izan zuten gazteek eta beren irakasleek, noski. Horrela bada, Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako fisika-kimikako hiru ikaslek aukera izan zuten kongresuan parte hartzeko. Horrela, EAEko 40 ikastetxetako ikasleekin batera, beren galdera, kezka eta zalantzak aditzera eman ahal izan zituzten Donostian.



Luis Peña Gantxegi

eta Haurtzaro Ikastola

Luis Peña Gantxegiren lanak ezinbesteko erreferentzia dira Euskal Herrian egin den arkitektura modernoa aintzat hartzen badugu. Egindako lanek arkitektura garaikidean dute oinarria, arkitektura arrazionalistan. Arkitektura mota hori bere garaia egokitzen saiatzen da; bolumen garbiz egindako arkitektura da, soila eta apaingarririk gabea. Zarauzko “Vista alegre” dorrea izan daiteke arkitektura arrazionalistaren adibide argiena.





Arkitektura arrazionalistarekin batera, Peña Gantxegik herri arkitektura landu zuen: arkitektura modernoa eta herri arkitektura egoki uztartu zituen. Ideia hau oso argi ikus daiteke etxebizitza tipologiaren inguruan egindako hainbat lanetan: Mutrikuko etxebizitza ugarietan, Olazabal, Urresti, Aizetsu, Rosas..., baita Oiartzunen egindakoetan ere: Ibargain, Arbide, Bidegafia, Arraskularre kaleko etxeak. Etxe hauek forma eta bolumen aldetik herri arkitekturaren oso antzekoak dira. Behetik hasita zabaltzen doazen eraikinak dira askotan, mailakatuak eta balkoiak elementu bertikalez osatzen ditu, garai bateko egurrezko balkoien antzera. Horregatik, etxe hauek oso ondo integratzen dira herrietako kasko zaharren eraikinen artean. Alegia, arkitektura garaikidea jorratu zuen herri arkitekturaren ezaugarriak uztartuz; haxe izan daiteke Gantxegiren ekarpenik handiena.

Herri arkitekturaren beste adibide eder bat espazio publikoaren inguruan egindako Donostiako Trinitate plaza da: frontoi, dema plaza, bolatokia eta herri kirolen elementuak hartuta osatu zuen espazioa. Lan honetan ere oso ondo uler daiteke Gantxegirentzat oso garrantzitsua zen beste kontzeptu bat: eraikuntzen eta naturaren arteko integrazioa, eraikinak inguruan egoki txertatu behar ziren, inguruko naturara eta topografiara egokituz. Urgull mendiaren magala eta plaza eraikiaren harremana naturala da.

Naturaren eta hiriaren arteko batasuna gauzatzen dituen beste proiektu nabari bat Haizeen Orrazia da.

Harriz egindako plaza mailakatu honek Txillidak egindako eskulturen ataria osatzen du, hiria eta itsaso zabalaren mugan. Leku honetan mendiak, itsasoak eta haizeak duten presentzia nagusitzen da eta arkitekturak hura sentitzen eta ikusten laguntzen du. Naturak, arkitekturak eta eskulturak elkar hartzen dute eta izaera berezia duen lekua sortu.

Proiektuen ideia lantzerakoan, lekuaren ezaugarriak eta topografia kontuan hartzen zituen, eraikuntzaren bolumena eta forma topografikoak berak erakusten du bere lan askotan. Horrela osatu zituen proiektu konplexu asko, bolumen aldetik ikusita oso interesgarriak direnak. Kota diferentzia handiak dituen bi kaletara egokitzen da eraikinaren bolumena dira "etxe grisak" Ergoiena bidean dagoen etxaldean adibide.

Haurtzaro ikastolan ere, inguruko topografiara egokitzeko zuen ahalmena ikus daiteke. Eraikuntza bertako topografia, inguru maldatsura egokitzen da. Eraikuntza bera baino interesgarriagoa da agian sortzen duen plaza anfiteatroa, espazio libre babestua, haurrentzako egokia eta benetan ederra.

Gantxegiren proiektuek ez zuten ikusgarritasuna bilatzen, gaur egun arkitekturarekin gertatzen den bezala, bere lanek aipatutako arkitektura kontzeptuen sakontasuna eta xumetasuna erakusten dute.





Maitane

Jarraian idatziko ditudan hitzak ez dira nahikoak hainbeste jenderen laguntzak sortutako sentimenduak azaldu eta eskertzeko. Zaila da pasa dugun eta pasako dugun sufrimendua eta borroka erakustea.

Baina une hau ez da horretarako. Une hau pozik egoteko eta gozatzeko da. Ez etsitzeko unea da. Borrokan jarraitzeko gogoia dugu, Maitaneren bizitza kalitate hobetu eta bizitza duina izan dezan. Bizitza bakarra dugu, eta osasuna ez dugu behar beste baloratzen, horrelako loteriarik egokitzen ez zaigun arte.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez. Hain gogorra den gaitxotasunaren aurka egunero-egunero borrokatzen duen ama batek esaten dizue. Eskerrik asko eman diguzuen berotasunagatik. Eskerrik asko, arazo guztien gaineratik, zuen esku zegoen guztia egin duzuelako Maitanerengatik.

Nire esker ona zuen bihotzetaraino iristea espero dut, eta zuen laguntzari esker, gure alaba Maitanek bere bizitzako ordu, egun, hilabete eta urte hoberenak igaro ditzala espero dut.

ESKERRIK ASKO!



Altxorraren saskia

Altxorraren Saskia adin txikikoentzat oso proposamen polita eta aberatsa dela iruditzen zaigu eta egunero zaindu beharrekoa. Haurra eserita mantentzen den momentutik, saskian dauden objektuak aukeratzeko eta manipulatzeko aukera izango du. Otarrean dagoen materiala arrunta bada ere, oso aberatsa eta baliagarria da jolasareko, zentzumen guztiek parte hartzen baitute. Objektuaren arabera haurrak sentazio ezberdinak bizituko ditu (metal eta kristalarekin hotza, egur eta oihalarekin beroa, kargak...). Haurrak nahi duen bezala manipulatuko ditu eta ez du arriskurik izango.

Saskian aurkituko ditugun materialak maiz aldatzea komenigarria da. Honakoak izan daitezke: pina buruak, oskolak, arropa pintzak, zepiloak, koilarea edo espatula, uztai txikiak, larruzko kartera, tenis pilota, giltzak, kateak inbutuak, ispilu txikia etab. Plastikoa ez dugu erabiliko.

Jolasa izateaz gain, haurraren sozializazioaren prozesurako esperientzia lagungarria da. Beren arteko begiradak, tirabirak eta besteak egindakoaren desioa pizten da. Taldeko jolas bihurtzen da eta horretarako garrantzitsua da saskia biribila izatea. Horrela, hiru edo lau lagunek parte hartzeko aukera izango dute.

Helduaren lana begiratzea izango da eta ez jolastea. Komunikazioa begiradaren bidez gauzatuko da. Helduak distantziatik haurra gehiago ezagutzeko aukera izango du. Liskarrak sortuz gero beren artean konpontzeko denbora emango diegu, baina erne egongo gara minik har ez dezaten.

Etxean dagoen materialarekin jolasteko aukera dago, ez da garestia eta joko handia ematen du. Beraz, gogoia izanez gero, animatu!

Egileak: Aitor Iraola eta Idoia López
Sehasketako irakasleak




Argazki lehiaketa DBHn

Aurtengo ikasturte hasieran DBHn azken urteotan ohikoa den bezalala, ziklokako irteerak antolatu dira. Lehen zikloa, ikastolatik atera eta Elorrietako kaskora heldu zen. Bigarren zikloak, aldiz, Aldurarako bidea hartu zuen.

Irteera honetan, DBH mailako II. argazki lehiaketa antolatu da. Argazki sariak hauek izan dira: DBH 2. mailako Iñigo Ruiz de Azua eta DBH 3. mailako Irati Huitzi ikasleak. Aipagarria izan da, benetan, ikasleen parte hartzea, atera-tako argazkien kalitatea eta originaltasuna.




Iñigo Ruiz de Azuaren argazkia



Irati Huitziaren argazkia

Zientzia astea

Donostian 2009



Benat Triego Perez eta Uxue Barrenechea Bruño
DBH 3

Urtero bezala, ikasturtea hasi eta berehala zientzia astea egiten da Donostian. Ohikoa den moduan, Haurtzaro ikastolatik DBHko ikasle mordoa joan gara zientziarekin loturik dauden ekintza batzuk egitera.

Hasteko, gure geneak aztertu ditugu. Esate baterako, sexu motak geneen arabera dira. Gizakion zelulen guneak 23 kromosoma pare ditu. Kromosomak geneen informazioa dute. Mutilek eta neskek 22 giza kromosoma berdina ditugu, baina sexua erabakitzen duena, 23.a, desberdina dugu: mutilek XY dugu eta neskek XX.

Ondoren, gure burmuina, honen garapena, pisua eta abar landu ditugu.

Jarraitzeko, fisika, kimika eta medikuntzarekin loturiko 10 bat galdera egin dizkigute. Fisika, kimika eta medikuntza albo batera utzi eta nesken kualitateak azaldu dizkigute. Guk normalean zientzialari bat esaten dugunean zuzenean mutil baten izenaz edo aurpegiar gogoratzen gara, adibidez, Torricelli edo Boyle. Baina hemen erakutsi digute neskak zientzialariak izan daitezkeela, sexuak ez duela baldintzatzen gure lan egiteko modua, ezta ere etxeko lanak neskek egin beharra.

Gero, robotika landu dugu. Hainbat mugimendurekin robotak nola mugitzen diren azaldu eta erakutsi digute.

Horren ondoren, bizikleta estatiko batekin sortzen den energia hainbat energia mota bilakatzen dela ere erakutsi digute.

Eta bukatzeko, mugimendu sentsoreekin landutako lan bat aurkeztu digute.

Ibilaldi hau benetan interesgarria izan da: Natur Zientzia eta Teknologia arloko elementu batzuk hobeto ulertzeko balio izan digu.





Jesus Cabrero

Orientatzailearen hitzaldia

Jesus Cabrero orientatzaile eta unibertsitateko irakasleak azaroaren 12an Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako ikasle garenok eta gure gurasoei orientazio hitzaldia eskaini zigun, Haurtzaro Ikastolako areto nagusian.

65 pertsona bildu ginen bere aholkuak entzuteko eta jarraitzeko asmotan. Bi orduko hitzaldi interesgarri eta baliagarri honen mezuak, "sois importantes", garrantzitsuak garela jakinaraztea zuen helburu; gu izango baikara urte batzuetara munduan errelebua hartuko dugunak.

Horrekin batera, ikastea bizitzaren alde positiboan egotearen garrantzia ere azpimarratu zuen, jakintza-aren ondorioa askatasuna delako, hain zuzen ere. Hitzaldiak interesgarria izateaz gain, ongi pasatzeko aukera ere eman zuen. Azaldu zuen ikasteko motibazioa eta desira gure ardura dela, eta horretarako norberaren ekimenari eutsi eta ikasterakoan kontzentratuta egon behar dugula esan zigun. Beti ere, alaitasun puntu batekin.

Hitzaldi honekin hasiera eman diogu DBH 4. mailako orientabideari. Izan ere, urtarrilean jarraituko dugu gaiarekin. Tutoretzako saioetan "erabakiak hartzen" izeneko unitatea lantzen hasiko gara. Sei urratsetan honako gaiak jorratuko ditugu:

- Zein da nire etorkizuna ikasle bezala?
- Ba al dakit zer gustatzen zaidan?
- Zertan moldatzen naiz hobeto?
- Nola definitzen dut nire nortasuna?
- Errendimendua eta balioak
- Urrats guztien sintesia

Otsailean, berriz, Oartzoko orientatzailearekin bilduko gara eta gelaka Oartzoko proiektuaren berri emango digu ikasleoi.

Martxoan guraso eta ikasleekin bilera orokorra egingo dugu Haurtzaro ikastolako areto nagusian. Horretarako, txosten bat banatuko digute DBH 4. mailaren ondoren dauzkagun ibilbideak argitzeko. Bileran Oartzoko zuzendaritza taldeko partaideek aurkezpen orokorra egiteaz gain, Oartzoko eskaintza eta aurrematrikulazioaren berri emango digute.

Eta datorren ikasturteari begira hartu behar dugun erabakia hain garrantzitsua denez gero, apirilean tutoreak gurekin eta gure gurasoeekin bakarka elkartuko dira, ikasle bakoitzaren dinamika eta etorkizunari buruz hitz egiteko.

Prozesu honi amaiera maiatza hasieran emango diogu, aurrematrikula beteko baitugu.

Miren Idarreta, Amaia Perez eta Jon Otamendi
DBH 4. mailako ikasleak



DBH 4. mailako ikasleok hamaiketako goxoak prestatzen




Azkeneko urteetan Haurtzaro ikastolako DBH 3. eta 4. mailako ikasleok aukera izan dugu atsedean garaian hamaiketako erozteraz ateratzeko Elordira edota okinde-gira. Aurten Hezkuntza Batzordean ikasleonen eskubide eta betebeharren dokumentua aztertu ondoren, ondorengo erabaki dugu ikastolan: DBH 4. mailako ikasleok atsedean garaian ogitarteko goxoak saltzea DBHko ikasleei, eta ikastolako eremutik ez ateratzea. Horrela sos batzuk aterako ditugu ikasturte amaierarako egingo dugun ikas bidaiarako.

Abenduan prestaketa lanetan murgildu gara: zenbat bezero izango dugun aztertu dugu, ze ogitarteko mota eskaini, zein prezioetan, erosketak nola bideratu, non saldu, saltzeko txandak prestatu... Urtarrilean hasiko gara gure zerbitzu berria eskaintzen.

Beraz, DBHko ikasleok: etxean ez baduzue hamaiketako prestatzeko astirik hartu, lasai ibili eta guri erosi, ogitarteko goxo-goxoak prestatuko ditugu eta.

ALDEZ AURRETIK MILA ESKER



**Urriaren
25ean**



Aritxulegi-Gorrinzulo Oiartzungo biraren 6. etapa

**Azaroaren
15ean**

Biriatu-Xoldokogaina-Manttalen



**Abenduaren
13an**

Negu Jaia




**Urtarrilaren
23an**

Sky-Ikastaroa



**Otsailaren
21ean**



Gorrinzulo-Gaintzurizketa.
Oiartzungo biraren 7. etapa.



Martxoaren 14an

Gaintxurizketa-Hautzaro Ikastola.
Oiartzungo biraren azken etapa.



Apirilaren 25an

Urdaburu (598m.)



Maiatzaren 23an

Leitzaran txirindaz



Ekainaren 6an

Ikastolaren eguna: jinkana



HIESA

sentsibilizazio astea

Harri-beltzak, Oiartzungo hiesaren kontrako elkarteak, abenduaren lehena Hiesaren Nazioarteko eguna zela eta, gaixotasun honetarako sentsibilizazio astea antolatu zuen gure herrian azaroaren 28tik abenduaren 4ra. Aste honetan gurasoei eskainitako hitzaldia eta Jon Bergaretxe, oiartzuar abeslariaren kantaldiaz gain, "Positiboa ala negatiboa?" izeneko argazki erakusketa eta DBH 4. mailakoei zuzendutako hitzaldia eskaini zituzten. Azken bi hauean Hautzaro ikastolako DBHko ikasleok parte hartu dugu.

Udaletxeko Areto Nagusian ikusgai jarritako argazki erakusketa sinplea bezain txundigarria zen. Joëlle Dollé argazkilaria erretratu guile paristarrak egindako formatu handiko 13 argazki-erretratu erakutsi zituzten. Argazkion helburua da Gib-hiesaren inguruan dauden aurreiritzi eta estereotipoei buruzko hausnarketa bultzatzea. Irudi bakoitzak zalantza baten aurrera garamatza: zein da gibduna? Benetan da garrantzitsua? Aurreiritzi eta estereotipo guztien gainetik pertsona dago eta horrela ikusteko gai izan beharko genuke. Argazkiak ikusteko aukerarik izan ez zenutenek, nahikoa duzue Google moduko interneteko edozein bilatzailetan "positibo ala negatiboa" hitzak idaztea. Erreferentzia ugari topatuko dituzue.



Hitzaldia, berriz, Joseba Errekaldek, Harri-beltza elkartearen lehendakariak, eskaini zuen. Bere helburuak gaixotasun honen bilakaera historikoa azaltzea eta prebentzio bideak argi uztea izan ziren. Erabat argi eta zuzen hitz eginaz, Josebak azaldu zigun gaixotasun honen bilakara, bere esperientziak ere tartekatuz: hiesaren sorreratik gaur egun arte, heriotza zigor izatetik gaixotasun kroniko bihurtzea lortu arte.



Eskolako Agenda 21: Gure seme-alabak

etorkizuneko herritar konpetenteak



Eskolako Agenda 21-ek eskola jasangarriaren bidea bultzatzeaz gain herritarrak hezten ditu, eta udal erabakietan eragina izatea lortu nahi du. Eskola agenda 21 egitasmoak ikasturte osoko plangintza biltzen du eta ingurumenarekin erlazioan dutako gaiak lantzen dira. Ikasleak berak hartzen du protagonismoa udalbatzarretan eta konpromisoak hartzeaz gain udal ordezkariari hainbat eskaera helarazten zaizkie. Eskolako Agenda 21 Euskal Herrian ez ezik munduko hainbat lekutan zabaldua dagoen programa da.

Honela, gure seme-alabak etorkizuneko herritar konpetente eta konprometituak izatea lortu nahi dugu.



Aurtengo erronka:

Hondakinen kudeaketa-trataera

Dakizuenenez, herri mailan aldaketa iraultzailea datorkigu hondakinen kudeaketari dagokionez, Hondakinen Gaikako Atez Ateko Bilketa.

Hari honi jarraiki, guk ere, ikastola mailan, hondakinen trataerari buruzko lanketa egitea erabaki dugu. Hasteko, gai honen inguruan gure ikastolan hondakinen trataerari buruzko diagnosia egingo da lehenengo, dauden hutsuneak aztertuz; ondoren horren arabera ekintza plana jarriko dugu martxan, helburu zehatzekin.

Zer egiten dugu eta zer egin dezakegu

hondakinekin

Gure herrian, etxe hondakinen % 80 zuzenenean zaborte-gira bidaltzen omen dugu, eta soilik %20 omen da birziklatzen duguna. Herrialde desberdinetako datuek erakusten dutenez Atez Ateko bilketarekin lortzen den birziklatze-tasa %80 ingurukoa da. San Markoseko zaborte-gira itxi zenetik gure zaborrak beste zaborte-gira batzuetara bideratu behar dituzte: Zarautz, Azpeitia, Beasain eta Igorrera. Honek suposatzen duen gastua geroz eta altuagoa omen da gainera. Honek guztiak ekarri du Atez Ateko bilketaren aldeko apustua egitea.

Hautzaro Ikastolako

Eskolako Agenda 21 Taldea

Hautzaroko Eskolako Agenda 21 lan taldea osatu da dagoeneko eta lanerako gertu dago, aurtengo erronkari gogoz erantzuteko. Gaiaren sentsibilizazio eta girotzeko kanpainarekin hasteko bi ekintza burutuko dira, logoaren eta leloaren lehiaketa batetik eta bestetik erakusketa gidatua. Logoaren eta leloaren lehiaketan Elizaldeko eta Hautzaroko DBH-ko ikasleek parte hartu dute, eta aukeratutako irudi eta leloa hondakinen gaia lantzen den bitartean gure ikur bihurtuko dira. Lide Ibarguren, DBH 1. mailako ikasleak, irabazi du lehiaketa.



Haurtzaro ikastola eskola jasangarri izateko bidean konpostagailuaren kasua

Haurtzaron jada urrats garrantzitsuak eman dira hondakinen kudeaketaren inguruan, badira hilabete batzuk jangelan bildutako jaki-hondakinak konpostatzeko makinara eramaten direla. Hasieran zaila zirudiena ohitura bilakatu da dagoeneko. Emaitzak ere oso onak izan dira, kalitatezko konposta egin da eta gure herri inguruetako lorategietan erabili da.

Bidegorri berria

Kiroldegitik eskoletara?

Haurtzaro Ikastola, Elizalde Ikastetxea eta Oarsoaldeko Kalapie (Hiri-Txirrindularien Elkarte) batu dira Oiartzungo kiroldegia eta herriko bi eskolen artean bidegorria luza dadila eskatzeko udalari. Proposamen horren helburua da 2010. urterako udalak gastatuko duen gure diru-zati bat horretara bideratzea.

Bizikleta herri barruko eta herri arteko ibilaldietarako garraiobide egokia da. Ez du kutsatzen, isila eta merkea da; distantzia txiki eta ertainetarako azkarra da, mesedegarria osasunarentzat, ekonomiarentzat, eta ingurumenaren kalitatearentzat (zerbaitegatik izango da mundu osoan 1.000 milioitik gora lagunek aukeratzen dutela egunero mugitzeko). Munduan gehien erabiltzen den ibilgailua da.

Aldi berean, OINBUSA ekimenaren arrakasta ikusita, eta ikasleak eta gurasoak herritik oinez mugitzearen alde ekarriko duen autonomia eta askatasunaren garrantzia barneratuta, urteko beste sasoietara ere zabaltzea eskatu zaio udalari, ekimen simboliko soilak izan ez dadin. **Gu ere klima-aldaketaren aurkako borrokan!**

Gure ingurumena Mugikortasuna

- Ikasturte hasiera honetan ere OINBUSA martxan jarri dugu.
- Jantoki ondoan bizikletak aparkatzeko egokitze lanetan ari gara. Laster erabiltzeko moduan egongo da.
- Bidegorria ikastolaraino luzatzeko eskaera egina dugu udalean. Ea 2010eko aurrekontuetan onartzen duten; gure ikasleentzat bide segurua ziurtatuko genuke.
- Ikastolako garraio zerbitzua Xorrolarekin nola lotu aztertzen hasiak gara.



Eskutun elkarte 6. urtez ikastolan

Azken sei urte hauetan, Haurtzaro ikastolako DBHko ikasleok badugu Euskara Elkarte: Eskutun. Ikasleone artean euskararen erabilera sendotzeko asmoa dugu eta aurtan ere eskuak bete lan izango dugu.

Eskutuneko taldekideok ostiral arratsaldeetan elkar-tzen gara, ikastorduz kanpo. 34 ikasle arituko gara lanean elkarte honetan: Jon Otegi, Aitzol Salaberria, Beñat Oiarbide, Aitor Ibarguen, Mikel Urdanpilleta, Ekain Susperregi, Jon Garcia, Aritz Olarte, Gorka Adu-riz, Josu Jimeno, Gotzon Retegi, Izar Fernandez de Gorostiza, Lide Ibarguren, Maddi Ibarguren, Maialen Elorza, Maialen Sthephens, Ane Ibarguren, Iraitz Mateo, Eneko Iparragirre, Aroia Altuna, Haizea Saez de Egilaz, Uxue Agirre, Izar Aizpuru, Goiatz Aramendi, Uxue Barrenetxea, Jara Garzia, Aintzane Toledo, Mikel Aranburu, Itsaso Mendiburu, Amaia Ostolaiz, Ziortza Salaberria, Olaia Sanchez, Ugaitz Susperregi, Ander Aranburu. Bereziki indar berritu da taldea, izan ere, DBH 1. mailako ikasle berri ugari eman du izena euskararen alde lan egiteko.

Urteroko programari jarraituz, Euskaraz Bizi egitasmo-an hartuko dugu parte: HHko geletan Argitxo iratxoaren aurkezpenak egingo ditugu eta honen ipuinak kon-tatuko dizkiegu ikasle txikienei.

Gainera, ikastolak antolatzen dituen ekitaldi eta ospa-kizun guztietan: San Tomas, Olentzero, Inauteriak, Santa Ageda, San Nikolas... euskararen presentzia ziurtatzen ahaleginduko gara.

Euskarazko paisaia ere zainduko dugu. Horretarako Euskara hobean hobe izeneko kanpainarekin jarraitu-ko dugu. Egitura traketsak zuzentzeko esaldiak auke-ratu, zuzendu eta betiko tokietan zintzilikatuko ditugu.

Horiekin batera, ikasleen arteko kideztze saioak ere prestatuko ditugu: jolasak, kirol lehiaketak, ipuin kon-taketak, antzerki emanaldiak...

Lehen hiruhilabeteko kanpainarekin loturik, DBH osoan "anti-piropo" lehiaketa antolatu dugu, jendeari gauza desatseginak euskaraz esateko moduak lan-tzeko eta arrakastatsua izan da oso.

Lanari gogor eta gogoz helduko diogu hemendik aurrera ere. Euskararen alde lan egin nahi duen edo-nork ateak zabalik izango dituela jakinarazi nahi dizuegu.





EUSKARAZ BIZI: 1. kanpaina

idazmena lantzen

Aurtengo lehenengo kanpaina azaroaren 16an hasi da eta hamabostaldia iraun du. Kanpaina horren helburua IDAZKETA (ipuinak, narrazioak, poesiak...) lantzea izan da.

Kanpaina girotzeko, Gabriel Arestik sortu eta Xabier Letek abestutako San Simon eta San Juda aukeratu dugu. Izan ere, garai oparoenak ez badira ere, abestiak dioten bezala, nahiz pobreak nahiz aberatsak izan, denak euskaldunak gara.

Idazketaren lanketa eguneroko lanean txertatuko dugu. Amaieran, kidetze saioak egin ditugu, lanak eta esperientziak elkarrekin trukatzeko.

Euskara hobetzeko ahaleginetan, erabilerak traketsak zuzentzeko tarteak ere izan ditugu eta kanpainen zehar landu dugun esaldia hauxe izan da:

A-que hori esan duela?

Hori esan duela?


A-que bai!

Baietz!

SAN SIMON ETA SAN JUDA


San Simon eta San Juda
joan zen uda, eta negua heldu da: (bis)
ez baletor hobe, bizi gara pobre
eremu latz honetan
ez gara hain onak benetan

Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak
ez dugu abererik, ez gara aberatsak
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak.





09ko Euskararen eguna ospakizun eguna izan da Haurtzaro ikastolan. Euskararekin gozatu eta euskararekin lotutako konpromisoak hartu, horixe izan da egunaren ardatza. Horrela, goiz nahiz arratsaldean, ikasle guztiek parte hartu dute antolatutako ekitaldietan eta euskararen aldeko jarrera azaldu dute. Beste urtebetean Argitxoren kriseiluak piztuta jarraituko du. URTE ASKOTARAKO, EUSKARA!



Goizean





Arratsaldean Argitxoren urtebetetzea



Ekitaldi nagusia



DENON ESKURA



KATRIKULAZIO KANPAINA 2010/11 IKASTURTERAKO

Oraingoa matrikulazioaz aritzeko tarte hartuko dugu.

Jakin badakizue gure ikastolan, Udal Ikastola Par-tzuergoa barne, 2 eta 3 urteko haurrak matrikulatzen ditugula urtero.

Matrikulazioa zein datetan egin Hezkuntza Sailak erabakitzen du, baina ohikoa izaten da urtarrila bukaera edo otsaila aldera izatea.

Gure ikastolaren nahia da Ikastolako Hezkuntza Proiektua bere seme-alabentzat aukeratzen duten familia guztiei gure ikastolan matrikulatzeko aukera eskaintzea. Baina gaur da eguna matrikulazioa ere administrazioaren esku gelditzen ari dena; bestela esanda, Hezkuntza Sailak erabakitzen du ikastetxe

bakoitzak eskain dezakeen plaza kopurua. Hori horrela izanik, Haurtzaro ikastolaren kasuan, ikastolak ego-kituak dituen plaza kopurua baino matrikulatzeko eskaera gehiago izango balu, Hezkuntza Sailak erabakia duen baremazioa egin ondoren, administrazioak berak erabakiko luke ikasle horrek zein ikastetxetan izango duen plaza.

Gure aldetik ahaleginak egin ditugu hau gerta ez dadin, eta horretan jarraituko dugu, baina guztia ez dago gure esku. Horregatik, gure aholkua lehenbailehen gurekin harremanetan jartzea da. Kontsultaren bat egin nahi izanez gero, edozein momentu da ona horretarako, eta laguntzeko prest gaituzue.



gazte foroa



Bst iksturt 1 +. Z iruitzn? B guzela aurea eh?

AH! Bakau logua!!!!!!!!!!!! Leyakta antolatu ta Ekain Susuperregik irabzi zun. ZORIONAK Ekain. Hemendik aurea era2ltzn hasiko ga.

Aurtn jnd berri asko dugu gue 2lletetan, 2ño +etorri nahi bazut ONGI TORRIYAK izango zazt.

Datorrn 3illabtia Elizalde Herri eskolan elkrutuko ga 3:10 etatik aurea.

Torri zr tzut galtzko ba? Irabaztko brriz asko: laun berriyak, arratsalde pasa mundialak, far batzuk e botzn ttugu, ta egiya san br badugu ez tugu hainbst-ko lanik ittn (hau garrantzitsua da)

Bno, txapa + gab. DBH1 ETIK 4 artko gztiak gon2datuk zozt 2lletetan part hartza.

Ah! Azkn gauza krtlak irakurri ta al loro eon guk gauzak antolatzn jarraituko dugu ta.

hasi da Kuadrillategi!

Aurtengua re hasi da. Aurkezpen batzuk ikastetxetan, kartel batzuk pasillotan, meriendatxo bat ta, aibala!, gure Ugaldetxoko lokal zaharrea berrize. Batzuk berrize, ta bestik lehenengo aldiz. Gaztiataz aparte, aurtengun hezitzaile batzuk e (gaztiak hoik re!) lehenengo aldiz sartu dia gue lokalin: ongi etorri denai! Beteranuk e ongi etorriyak zazte; hoi bakizute zuek (ta ez ahaztu!).



Nobedadik nobedade, aurtan re hasi dia karaokin lehenengo lotsak kantatzen, masaje tallerakin beldurrak goxatzen ta perkusiyo tallerrin gorputza ta mingaina askatzen. Ta Arantzara intako asteburu-pasan zuhaitzetatik zintzilik utzi ttugu apuro ta lotsa guztiyak.

Ta, holaxe, kontutu gabe martxan hasi da Kuadrillategiko fabrika: hasi da kuadrilla diferentetatik kuadrilla haundi bat itxuratzen. Ikusiko dugu ze atetzen den. Kontatuko hurrengo batin!



haur Hezkuntza 1

TXIKIAK, BAINA ARTISTAK

Ikasturtea hasi dugunetik, zenbat gauza bizi izan ditugun! Lehenengo egunetako urduritasun eta emozioak, lagun, irakasle, gela, egoera berriak... poliki- poliki martxa hartu dugu eta orain lanean tinko ari gara. Begira zenbat gauza egin ditugun!! Denak politak, ezberdinak, bakoitzak gurea, guk egindakoak...

Pasiloak eta gure etxeak dagoeneko arte-lan dotorez apaintzen ari gara. Ikusi nahi badituzue, gure pasiloetatik pasa eta gozatu hauek begiratzuz.





haur Hezkuntza 3

Supermerkatuak ez zegoen garaian, gure aitona-amonak esne bila joateko ontzi berezi bat erabiltzen zuten, marmita, gaur egun desagertua dagoena. Guk ikastolan ezagutu dugu eta hona hemen bere argazkia batzuek ikusi eta besteek gogora zaitezten.



haur Hezkuntza 2

Badakizue?
Aurten ikasi dugu
“txermoniak” zer diren.

Udazken gaia zela eta, San Martin eguna iritsi zenean Txirritxek sorpresa eman zigun. Pakete bat aurkitu genuen gelan eta barruan... Txermoniak. Eskutitza ere bidali zigun eta bertan kontatu zigun egun horretan baserritarrek duten ohitura:

- 1.- Txerria hiltzea, zatitzea eta negurako gordetzea.
- 2.- Odolki eta txorizoak egitea.

Eta guk ere haiek bezala ospatzeko, txorizoa, odolkia eta urdaiazpikoa jan genuen. Eta ziplo! Dena bukatu genuen... Bai goxoa zegoela!



LH1

Aurreko egun batean 1. mailako pasilotik hau entzun nuen:

**Hara, nola dabilen
lehen gizakia:
koba ingurua du
gustuko tokia.
Sua pizten ikasiz
tresna egokia,
mamutak ehizatuz
haragi-jakia,
eta larrua berriz,
bere estalkia.**

Lehen gizakiak bisitan etorri omen ziren!
Begira zer egin zuten:



lehen

LH2

**Gure laguntxoek denboraren maki-
na puntu-puntu jarri zuten eta
lehen bidaia egin dugu.**

Ba al dakizue nora joan garen? Ez?
Bada, Erdi Arora!

Hilabete honetan Erdi Aroaren inguruko gauzak
ikusten eta ikasten ibiltzeko aukera izan dugu.
Horrela, Hondarribia ezagutzera joan ginen eta
bertan Erdi Aroko hainbat aztarna ikusi eta
aztertu genituen.





LH3

LH 3. mailakoek Egiptoko gaiarekin gauza asko deskubritzeko aukera izan dugu. Horien artean, obeliskoa.

Gure geletan ere, etxetik ekarritako hainbat materialekin, maketa bat antolatu genuen.



Gai honi esker jolas bat ikasteko aukera izan dugu: XAKEA



Obeliskoak tenpluen parean binaka zeuden eraikuntza erraldoiak izaten ziren. Eraikuntza agindu zuen faraoiaren alderdi on guztiak idazten ziren. Hieroglifiko moduan, noski!

Ikertzaileek bere garaian irudien bidezko mezu sekretuak irakurri ahal izan zituzten bezala, hemen eskaintzen dizuegu gure mezu sekretua. Ea irakurtzea lortzen duzun!

**G1B4N Z4R34NTS51K P1S1 3TZ1Z52!!
B13N1 K4NT5Z T5RR43 G4G4RR1R2K3N
B2R1R2K3N B1T2R1 H4RTZ1K J1N G1B2!!**



LH4

“Ameriketara joan nintzen” izenburuean Txanelako 2. gaia landu dugu LH 4. mailan.

Gaiaren bukaerako proiektua emanaldi bat antolatzea izan zen. Emanaldian olerki, kantu eta dantza saioak ikusgai izan genituen.

Venezuelaren berri Edson DBH 1. mailako ikasleak eman zigun. Hango ezaugarriak, ohiturak... azaldu zizkigun.

Willyk ere inken agintari eta konkistari buruzko azalpenak eman zizkigun. Cuscok munduaren zilborra esan nahi duela ere ikasi dugu.

Eskerrik asko Edson eta Willyri beren azalpenengatik, ez ditugu ez hain erraz ahaztuko!



Willy-ren amona

Sung manitu tan ka
Sung ma ke tu
Tipi xun ka
Ta tan ka.

Sung manitu tan ka
Ta tan ka
Xun ka ua kan
Xun ka
Sung ma ke tu.

Xun ka ua ka
Tanka tan ka
Tipi xun ka
Sung manitu tanka
Ta tanka.

Gora amerindiarrak!



Willy inken istorioak kontatzen



Edson Venezuelaz hitz egiten



LH5

Kaixo lagunok!

5. mailakoak gara eta argazki hauetan aurkituko gaituzue.

Izan ere, hiruhilabete emankorra izan dugu: unibertsoari mila bira eman dizkiogu (planetariumera ere joanez), Euskal Herria gehiago ezagutu dugu (mapak, mendiak, ibaiak...), euskal pilotako hainbat jokotan jardun gara, musika txokoan egon gara, zuetako asko bezala ikasysen murgildu gara, mekanografia ikastaroa egin dugu...

A ze gauza pila!



LH6

Kaixo:

Hemen gaituzue berriro ere. Aurtengo ikasturtean 6. mailan gaude, Lehen Hezikuntzako azkeneko mailan.

Lengua Castellana arloko proiektua *Una galería de arte* izan dugu eta gure lanaren nondik norakoaren berri eman nahi genuke.

- Hainbat materialekin eskultura landu dugu.
- Obra horietako bat aukeratu dugu bere prozesua azaltzeko.
- Obra horren autorearen biografia txiki bat idazten saiatu gara.
- Eta horrekin guztiarekin erakusketa bat antolatu dugu, katalogo eta guzti, gure beheko pasilo honetan.

Ez dakigu erakusketa bisitatzeko aukerarik izan duzuen. Hala ere, argazki hauetan ikus dezakezue gure lanaren ondorioa nolakoa izan den.


Urteberri on!





bigarren Hezkuntza

DBH1



Haizea Castaño eta Enara Inagorri
DBH 1

Ba al zenekien?

Ba al zenekien Pluton planeta zela?

Clyde Tombaugh astronomo estatubatuarrek aurkitu zuen 1930. urtean. 2006. urtea arte eguzki-sistemako bederatzigarren planetatzat hartua izan da, baina 2006ko abuztuaren 24an Nazioarteko Astronomia Elkarteak eginiko bileran planetaren definizioetik kanpo utzi eta Planeta ipotx izendatu zuen. Eta hau guztia, zergatik? Ba bere ibilbidean orbita garbirik egiten ez duelako, Neptunoren ibilbidea gurutzatzen duelako. Tira! Orain eguzki-sistemako planetarik txikiena Merkurio da.

Ba al zenekien ilargian ura aurkitu dutela?

Orain dela urte batzuk ikertzaileak Ilargian ura bilatzen aritu dira, eta badirudi NASAK azkenean aurkitu duela! Hala ere, oraindik ez dakigu zein motatakoa den. Batzuen ustez, meteorito eta asteroideetatik eratorria da, eta beste batzuek uste dute barrutik iristen dena izan daitekeela, baina seguruena barrutik iristen dena izatea omen da.

Marea biziak zer diren eta zergatik sortzen diren ba al zenekien?

Marea biziak gertatzean, marea inoiz baino gehiago igotzen da eta inoiz baino gehiago jaisten da. Ilargiak erakarpen indarra duenez, Lurreko ura erakartzen du, toki batzuetan marea igoz eta beste batzuetan jaitsiz. Eguzkiak ere badu erakarpen indarra. Ilargia, Eguzkia eta Lurra parekatzean Ilargiak eta Eguzkiak ura erakartzen dute, orduan inoiz baino gehiago jaisten dira mareak Lurreko toki batzuetan, eta inoiz baino gehiago igotzen dira beste toki batzuetan. Horregatik sortzen dira marea biziak. Hilabeteetan bitan gertatzen dira.

Izarrak jaio, bizi eta hil egiten direla ba al zenekien?

Izarrak bizi egiten dira, eta bizitzan fase desberdinak izaten dituzte. Fase bakoitzean izarrek balore jakin batekoak dira: hasieran urdinak dira, gero zuriak, ondoren laranja, gero horiak, eta hiltzera doazenean gorri bihurtzen dira. Izarrak hiltzen direnean lehertu egiten dira.

Ba al zenekien unibertsoa, ikusteaz gain, entzun ere egin daitekeela?

Gaur egun unibertsoa teleskopioekin ikusteaz gain, irrati teleskopioen bidez entzun daiteke. Irrati teleskopioek unibertsoko gorputzek bidalitako irrati seinaleak jasotzen dituzte eta hauen ondorioz, unibertsoa entzun daiteke.

Ba al zenekien Lurretik begiratuta ilargiaren aurpegi bakarra ikus dezakegula?

Ilargiak, Lurra bezala, errotazio mugimendua eta translazio mugimendua egiten ditu. Ilargiak Lurraren inguruan bira oso bat egiteko (translazio mugimendua) 27,32 egun behar ditu eta bere ardatzaren inguruan bira bat egiteko (errotazio mugimendua) 27,32 egun. Bi mugimenduak egiteko denbora bera behar du. Horren ondorioz, ilargiaren aurpegi bakarra ikus dezakegu Lurretik argituta. Bestea beti ezkutuan edukiko du Lurretik begiratzen dugunontzat. Fenomeno honek eztabaida asko sortu ditu; baita pelikulak ere.

Ez da erraza

Ez da erraza
atzera begiratzea
eta mina eragiten duten gauzak
ikusi eta entzutea.

Baina batzuetan
nahi gabe izan arren,
egiten dugu,
gero damutzeko.

Ez da erraza
gaizki egindakoak onartzea
eta ondoren
barkamena eskatzea.

Ez da erraza
zuga ez pentsatzea.
Ez da erraza
zu ahaztea.

Ez da...
ez da erraza
horrelako gauzak azaltzea;
luzeak eta zailak direlako.

Ez da erraza...

Bizitza honetan
ezer ez da erraza.
Hala ere,
benetan lotu nahi bada,
lor daiteke.

*Maidier Olaizola
DBH 1.MAILA*



Gaizki sentitzen naiz

Nire amets handia zu izan zara,
betidanik.
Betidanik,
asko sufritzen dut zuregatik,
betidanik.
Betidanik,
egon naiz zure atzetik,
betidanik.

Orain gaizki sentitzen naiz
zure erruagatik.
Amesgaiztoak ditut
utzi ninduzunetik.
Denetik egin dut,
zu eskuratzeagatik.
Baina ez dut aukerarik,
urrundu beharko dut zuregandik.

Oiartzundik Irunera,
ez dago tarte handirik.
Hala ere, ezin izango dut
urrundu zuregandik.
Agur, Bilbora noa,
ez kezkatu niregatik.
Ahaztu beharko zaitut
betirako alferrik.

*Josu Jimeno
DBH 1.MAILA*





Andoni Ugaldé
DBH 3

Aizkora

Aizkora herri kirol bat da. Hain zuzen, herri kirolen artean gogorrena, baina baita ikusgarriena ere. Kirol honen arauak oso sinpleak dira: neurri jakin batzuetako enbor batzuk aurkariak baino lehenago moztan saiatu behar da. Hori egiteko 30 bat minutu behar izaten dituzte, baina apustuetan 2 ordu ere egon daitezke.

Enbor hori mozteko aizkolariek bi lan mota egiten dituzte: azalekoa eta bihotzekoa. Aizkolaria enborra ebakitzen hasten denean, honen gainean jarrita, lehenik bi aizkorakada ematen dizkio gainazalean. Bi aizkorakadak juntatu egingo ditu puntu jakin batean eta kolpeka jarraituko du enborra erditik ebaki arte.

JATORRIA

Erdi Aroan, Euskal Herrian egur asko behar izaten zen. Horregatik, askok moztan zuten egurra, hain zuzen, aizkolariek. Basoan egiten zuten lan eta elkarren artean apustuak jokatzan hasi ziren ea enborra zeinek ebaki lehenago. Hasieran, apustu hauek basoan jokatzan ziren, baina indarra hartzen joan ziren eta egitarau baten barruan sartu ziren. Gaur egun, ordea, lehen aipatu bezala, herri kirol bat da.

ENBORRA eta AIZKORA

Aizkolariek erabiltzen zuten zuhaitz mota pagoa izaten zen, izan ere ugaria zen lehen Euskal Herrian. Baina prezioz igo egin da eta gaur egun pinua ere erabiltzen da. Enborraren perimetroa edo lodiera neurtzeko ontza (2,3 cm) izena duen neurria erabiltzen da. Gehien erabiltzen den neurria oinbetekoa da (36 ontza). Apustuetan, aldiz, 80, 108 (kana) eta 110 ontzako enborrekin ibiltzen dira. Txapelketetan, 54 (kanaerdia) 60 eta 72 (oinbikoak) ontzakoekin jarduten dira aizkolaria.

Enbor hauek mozteko aizkolariek erreminta bat erabiltzen dute: aizkora. Gutxi gorabehera, aizkolariek 8 bat kiloko aizkorak erabiltzen dituzte. Bi aizkora mota erabiltzen dituzte. Gainazalekoa eta bihotzekoa, pisu gutxiagokoa eta zorrotzagoa dena.



TXAPELKETAK

Txapelketetan bakarrik jarduten dute aizkolariek. Txapelketarik aipagarriena edo garrantzitsuena Euskal Herrikoa da. Urtero egiten da. Maila ezberdinak daude txapelketa honetan; lau: gazteena, hirugarrena, bigarrena eta nagusia. Baina badira beste txapelketa garrantzitsu batzuk ere: Nafarroako bi-bitako txapelketa, hemengo 6 aizkolaria onenekin egina, Donostiako Urrezko kopa eta Urrezko aizkora. Azkeneko bi txapelketa hauetan Euskal Herriko onenak lehiatzen dira.

AIZKORA PROBAK

Normalean, aizkolaria enborra horizontalki jarrita lehiatzen dira, baina ez da modu bakarra. Enborra bertikalean jarrita ere lehiatzen dira. Azken hau gehiago aztertuko dugu. Aizkolariek aizkorakada txikiak ematen dizkiote enborrari eta behin eginda oholak sartzen dituzte. Aizkolaria goraino iritsitakoan, enborra ebakitzen jarduten da.

AIZKOLARIAK

Aizkolariek diru gutxi eskuratzen dute eta ezin dira aizkoratik bakarrik bizi. Izan ere, ez dute enpresa baten kontraturik. Hala ere, aizkolariek dirua ere lortzen dute. Apustuetan lortzen dute diru gehien. Diru kopuru bat jartzen dute eta irabazlea diruarekin gelditzen da. Aizkolaria ospetsuenak:

Gaur egungo Migel Mindegia, Floren Nazabal, Donato Larretxea eta Joxe Mari Olasagasti dira.

Baina lehenagotik ere egon ziren aizkolaria onak. XIX. mende amaierako garrantzitsuena Joxe Arrospide izan zen.

EMAKUMEAK ETA GAZTEAK AIZKORAN

Beti pentsatu izan dugu aizkora gizonen kirola dela, baina badira hainbat emakume aizkora aritzera animatu direnak: Kristina Saralegi eta Maika Ariztegi, besteak beste. Hala ere, emakumeek ez dute arrakasta handiegirik lortu. Izan ere, gizonezkoekin erabat loturik dagoen herri kirola da aizkora. Baina ezin daiteke pentsa aizkorak jarraitzaile asko duenik. Egia esan, gazte gutxi jarduten dira aizkora. Gaur egungo gazteek nahiago izaten dute beste kirolen bat, aizkora jardutea oso gogorra baita. Baina espero dezagun aizkoraz urte askoz gozatzan jarraitzea.



Aitzia Oarte eta Aneke Loiola
DBH 4

Gran Torino **filma**



Urriaren 16an, Haurtzaro ikastolako DBH 4. mailako ikasleok, "Gran Torino" filma ikustera joan ginen Irungo Amaia antzokira. Bertan beste ikastoletako hainbat ikasle zeuden. Haiek gurekin batera ikusi zuten filma.

"Gran Torino" filma Koreako Gerrako beteranoa izandako eta Ford autoen muntatze kateaz arduratzen zen Walt Kowalski poloniar-amerikar langile jubilatuari buruzkoa da. Michigango Highland Park auzunean bizi da Daisy bere txakur emearekin batera. Auzunean etorkin asko bizi dira.

Filma bere emaztearen hiletarekin hasten da. Walt Kowalski erabat suminduta dago. Waltek bere bi semeak, Mitch eta Steve, nahigabe eta etsipenez begiratzen ditu; baita euren familiakoek ere, emaztearen oroimenari begirune gutxi erakusten baitiote. Walten iritziz, ilobak lotsagabe eta mainontziak besterik ez dira, ez dute berarekin ezer jakin nahi, beren interes edo nahiak lortzeko ez baldin bada. Waltek Hmong etniako bi gazte ditu bizilagun: Thao izeneko mutil lotsati eta isil bat, eta Sue Vang Lor bere arreba lotsagabe samarra eta buruargia. Bi hauek ama alargunarekin eta amonarekin bizi dira.

Thaoren lehengusu nagusia Araña buru duen Hmong gaizkile taldetxo bat Thao berarekin elkartu dadin saiatuko da. Horretarako, eta bere aurreneko gaizakeria bezala, Thaoren eginbeharra Walt Kowalskiren

jabego preziatuena lapurtzea izango da: 1972. urteko Gran Torino auto ederra. Pixkanaka-pixkanaka, Sue eta Thao gazteak Walten benetako lagun egingo dira.

Amaitzeko, Walten testamentuaren irakurketa azaltzen zaigu. Senitarteko guztiak bere jabetza eta dirua eurei utzi dielako ustean daude, baina usteak erdi ustel: Waltek etxea eta jabetzak elizari uzten dizkio eta bere altxor handia, Gran Torino autoa, bere lagun-min Thaori ematen dio. Walten senitartekoak ezer gabe, zur eta lur gelditzen dira.

Gure iritziz, film hau oso interesgarria eta entretenigarria da. Mafiei buruzko pelikula bat dela pentsa genezake, titulu egokia baitu era horretako filma izateko.





Arte arloko ikasleak

DBH 4

hatzak BETE LAN
DBH4



Xabier Lete



Xabier Lete Bergaretxe Oiartzunen jaio zen 1944ko apirilaren 5ean. Euskal Herriko poeta eta kantari esanguratsu honek Euskadi Literatura saria irabazi berri du *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuagatik.

Ez dok hamairu taldearekin hasi zuen bere bizitza artistikoa Letek. 60ko hamarraldian, Francoren diktadurapean, euskal kultura berreskuratzeko eta indartzeko asmotan sortutako musika taldea zen. Gaztetatik du, beraz, oiartzuar honek euskal kulturarekiko konpromisoa.

Abeslaria izateaz gain, poeta ere bada Xabier Lete. Bere bizitzan zehar hainbat eta hainbat olerki idatzi ditu, baita zenbait abesti konposatu ere. "Ni naiz" eta "Izarren hautsa" bezalako kantu ezagunen egilea dugu herrikidea.

Gaur egun oraindik poema lanak argitaratzen ari bada ere, aspaldi hasi zen lan honetan, 1968. urtean, hain zuzen ere. Urte horretan argitaratu zuen bere lehen poema bilduma *Egunetik egunera orduen gurpilean*. Harrezkeroztik hainbat lan argitaratu ditu: *Urrats desbideratuak*, *Biziaren ikurak* eta *Zentzu antzaldatuak poemategia*, adibidez.

Denbora batez, Letek politikan ere jardun zuen. 1980ko hamarkadan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailean egon zen, lehenengo Zuzendari Nagusi

bezala eta ondoren Kulturako Ahaldu moduan. Baina gaixotasunak kargua uztera eraman zuen.

Xabier Letek sari asko irabazi ditu. 1981ean *Urrats desbideratuak* lanagatik Irun Hiria literatur lehiaketan saritu zuten. 1992an, berriz, Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia olerki saria jaso zuen, kasu honetan *Zentzu Antzaldatuak poemategia* lanagatik.

Aurten, 2008an argitaratu zuen *Egunsentiaren esku izoztuak* poesia liburuagatik irabazi du saria; Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak urtero banatzen duen Euskadi Literatur saria, hain zuzen ere.



Oiartzoko ikasleen ikasturte hasierako

Txangoa

Aurtengo ikasturteari irteera batekin eman genion hasiera Oiartzon. Joan den urtean hasitako ekimena arrakastatsua izan zen, eta aurten ere jarraitzea erabaki genuen.

Bi eguneko irteera egin genuen urriaren hasieran: Errioxa eta Burgoseko lurraldeetara 1. mailakoekin eta Nafarroa aldera 2. mailakoekin. Txangoaren helburu nagusien artean genituen, ikasleen arteko harremanak sortzea edo sendotzea eta ikastolan lantzen diren zenbait gai osatzea.

Bigarren helburu horrekin lotuta interesgarriak iruditu zitzaizkigun hauexek. 1. mailakoentzat: Naiarako Santa Maria la Real eliza, Suso eta Yusoko monasterioak Donemiliagan, eta Atapuercako aztarnategiak.

2. mailakoentzat: "Aula de enegías renovables", eguzki baratza eta biomasa zentrala ikusi genituen Aibar, Kaseda eta Zangotza herrietan. Hurrengo egunean Oliteko errege-erreginen jauregira hurbildu ginen, Lizarra herria bisitatu genuen eta Urbanas ibilalditxo egin genuen. Itzuleran, lan batzuk egin behar izan zituzten, gai batzuetako irakasleek aginduta.

Esan bezala, beren arteko harremanak sendotzeko ere balio izan zuelakoan gaude, ikasturtea girotzeko bidea ematen zuen-eta.





Uxue A., Izar, Garazi L., Zieritza eta Tara

DBH 3

Ekaini elkarrizketa

1. Zein da zure izena?

Ekain Kazabon Urbietta

2. Nongoa zara?

Oiartzuarra naiz, baina orain Donostian bizi naiz.

3. Zenbat urte dituzu?

27 urte ditut.

4. Ikasketak non egin dituzu?

Hautzaro ikastolan oinarrizkoa, eta Batxillerra berri, Oiartzon, Oretetan.

5. Ikasle ona al zinen?

Bueno... LHko 8. maila arte (oraingo DBH 2) ez nintzen hain txarra izan, baina BUPen larri samar. Gero Batxilergoan oso gustura ibili nintzen.

6. Zure irakaslerik gustukoena?

Puf... ez da oso galdera erraza, baina, egia esan irakurtzen eta idazten erakutsi zidaten irakasleak izan ziren, hau da, Arantza Lopez eta Igone Urkia.

7. Badakigu sukaldari ona zarela, nolatan bururatu zitzazun lanbide hori aukeratzea, ikasketa horiek egitea?

Aitak lagundu zidan erabakia hartzen. Esan zidan bost urteko karrera hartzen banuen eta ez bazitzaidan gustatzen ez zuela merezi; hori bai, selektibitatea atera behar nuela, gaur edo bihar karrera ikasteko asmoa banuen ere. Beraz, 2 urteko goi mailako modulu bat hartu nuen, eta sukaldaritza gustatzen zitzaidanez, ba, horixe aukeratzea pentsatu nuen.



8. Baina geroztik gauza gehiago ere ikasi dituzu.

Bai. La Perlan aritu nintzen lanean, eta Comercio internacional ikasi nuen jarraian. Eta azkenik, oraingoz, Diseño gráfico amaitu nuen iaz.

9. Zein da zure hobbia?

Dantza. Tiki-ttikitatik izan dut gustuko. 5 urterekin hasi nintzen ikastolan dantza ikasten Juanito Sarriegirekin.

10. Eta geroztik?

Geroztik, Ereintzan aritu nintzen urte batzuetan. Handik Lezoko Murixka taldean ia 16 urte arte. Ondoren, Donostiako Eskola dantza taldean eman nituen urte dezente. Talde honekin asko bidaiatu genuen munduan zehar. Eta orain, Aukeran konpainian ari naiz.



11. Aukeran?

Bai. Aukeran Donostiako dantza konpainia bat da. Sei mutil eta sei neska gaude. Edu Muruamendiaraz da zuzendaria, eta hau dut bigarren urtea bertan. Orain Gernika izeneko espektakularekin gabiltza batera eta bestera.

12. Zer gustasen zaizu gehiago, dantza ala antzerkia?

Dantza gehiago gustasen zait.

13. Zure lehen antzezlan?

Ba... ikastolan antzerkia egiten genuen... Baina nire benetako antzezlan orain dela sei urte izan zen Txirri Mirri eta Txiribitonekin.

14. Nolatan aurkeztu zinen Goenkaleko casting-etara?

Ni antzerki munduan nenbilenean, esan zidaten Goenkaleko kasting batzuk zeudela eta aurkezteko mesedez. Nik hasieran ezetz esan nuen, baina hobeto pentsatu eta gero, saiatu egin behar nuela pentsatu nuen. Aurkeztu, eta hartu egin ninduten. Sekulako poza.

15. Kontaiguzu bertako anekdotaren bat.

Puf... anekdota bat...hasierako edozein anekdota. Platara iristean, tentsio handia duzu zure barnean. Fokoak alde batetik, zuzendaria bestetik, euskara zuzentzailea, errealizadorea, kamerak, makillaje-koak... Eta gero, ba, interpretatzea ez dela elkarriketa buruz ikastea soilik. Noiz sartu, nora begiratu, noiz eseri, noiz zutitu... Bertan 50 bat lagun dituzu zure inguruan, zuk hitz egiteko zain, eta edozein akats egiten duzula ere, moztu egiten dizute. Oso zorrotzak dira horrelako kontuekin.

16. Eta azkenik, kontaiguzu zure egun normal bat.

Nire egunak ez dira batere normalak... Goenkalean nenbilenean, egunero goizeko 7etatik eguerdiko ordu bata arte platoan egon behar nuen sekuentziak grabatzeko. Askotan, zorte ona bazenuen, zure sekuentziak jarraian egin eta etxera. Baina, sekuentziatik sekuentziara bi orduko tartea baze-
goen, zu bertan kieto, zain.

Orain Goenkale telesailan ez dudanez jarraituko, goizero Donostiako Groseko eskola batean dantza klaseak ematen ditut. Ondoren etxera joan bazkal-
tzera, eta laurak aldera Txirri, Mirri eta Txiribitonekin geratzen naiz antzeztu behar dugun herrian.

Antzezlanak beti desberdinak direnez, bi ordu lehenago geratzen gara ekitaldia eman behar dugun herriko antzokian.

Pirritx eta Porrotxekin aktuatu behar dudanean, berriz, nahikoa dugu ordubete lehenago geratzea.



Eta ilunabarrean, Aukeran-eko entsaioak. Ba, horrelako zerbait izango litzateke nire egun "normal" bat.

17. ETBn ba al duzu beste proiektu berriren bateko eskaintzarik?

Bai, aste honetako eskaintza izan da. Datorren denboraldi berriko Oh happy day! programako koreografoa izango naiz, gauzak ongi badoaz.



18. Galdera laburrak:

- Uda ala negua: uda.
- Kolore bat: urdina.
- Mendia ala itsasoa: itsasoa.
- Zenbaki bat: 13.
- Mania bat: asko...
- Herri bat: Oiartzun.
- Festa bat: Oiartzungo Xanistebanak.
- Liburu bat: nire aitaren "Pelu".
- Aktorea bat: Sara C3zar.
- Dantzari bat: Sara Baras.



Lehen hezkuntzako irakaleei elkarrizketa



Ezkerretik eskuinera:

Amaia Cardona, Eli Etxeberria, Inma Iturria, Amaia Genbeltzu, Arantxa Lopez, Marilo Zubizarreta eta Ana Aranburu.

1. Zeintzuk osatzen duzue ziklo hau?

Marilo, Arantza, Ana, Amaia Gelbentzu, Inma, Eli eta Amaia Cardona.

2. Ziklo hau Lehen Hezkuntza etapako hasiera izanik, ikaslearen garapenean ziklo honen garrantzia zertan datza?

Ziklo hau Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren arteko zubia da. Ziklo honetan idazketan eta irakurketan murgiltzen dira ikasleak. Era berean, haurrak autonomoagoak diren arren, aurrerantzean ere lantzen jarraitu beharreko zeregina da. Horretarako helduaren presentzia eta laguntza ezinbestekoa da. Ziklo honetan egiten diren proiektuen bidez, haurrak talde lana (iritziak aurkeztu, erabakiak adostu...) egiten hasten dira.

3. Irakurketa eta idazketa aipatu dituzue besteen artean. Nola bideratzen dituzue bi prozesu hauek? Biak elkarrekin doaz, ezin da bat bestea gabe ulertu. Haurrek irakurketan aurreratzen dutenean, idazmenean aurreratzen dute. Haur Hezkuntzatik konstruktibismoaren inguruan lantzen dutenaren jarraipena egiten dugu.

4. Lehenengo ziklo honetan ikasleak Txanela proiektuan murgiltzen dira. Aurretik Urtxintxarekin arituak dira. Jarraipena izanik, zein aldaketa azpimarratuko zenituzteke proiektu honetan?

Lehen Hezkuntzan txokoetan lan egiteari uzten zaio. Haur Hezkuntzan fitxa liburuxka batean arlo desberdinak biltzen dira eta Lehen Hezkuntzan arlo bakoitzak bere liburua du. Honetaz gain, arloak ordutegi zehatz baten arabera banatzen dira. Irakasle tutoreaz gain, Lehen Hezkuntzako ziklo honetan pixkanaka beste irakasle batzuk agertzen dira (musika, ingelesa eta gorputz hezkuntza).

5. Txanela proiektuak ekintza ugari ere proposatzen ditu. Denboran ere bidaiatzen duzuela badakigu. Aipa itzazue ikasleen gustukoenak.

Gaiaren inguruan egiten diren irteera eta maketak: 1. mailan dinosaurioen gaiarekin lotutako maketa oso gustukoa dute eta 2. mailan, Erdi Arokoa.

6. Egun, Ikasys proiektuan ere bete-betea ari zarete. Nola dabilta ikasleak? Eta irakasleak?

Ikasys proiektuarekin oso gustura eta motibatuta daude. Gu irakasleak ikasleekin batera ikasten ari gara, kar, kar, kar.

7. Beste zerbait aipatzeko...

Oso adin polita da eta haurraren garapenean aldaketa nabarmenak ikusten dira. Haurrarekin harremanak oso gertukoa izaten jarraitzen du. Irakasle eta ikasle arteko komunikazioa oso emankorra da.



7 Desberdintasunak bilatu



Egin ezazu sudoku hau!

	8		7	3				4
6					4	5	8	
1		2	6		8			
	9		1	2			3	
		6				4		1
		8		7	3		5	9
			2		5	9		
4						8		5
7		3	8		1	2	4	

Aukera ezazu esaldiaren esanahia:

Ardien kulpak bildotsak pagatu

- a) Goikoek egiten duten kaltea mendekoak jasan behar.
- b) Beti gazteenek jasaten dituzte kalteak.

Azeriak buztana jaso ezin eta bai gabia

- a) Azeria gaiztoa da bere kideekin.
- b) Hobe trebetasuna indar handia baino.

Ahal dela, itsasoan den arrain hoberena

- a) Hobe da eskuartean duguna zaindu.
- b) Arrantzatzerakoan beti da gozoena arrainik handiena.

Begira zer nolako koadrila politak ditugun hiru urteko geletan



Alaitz Lorza, Enara Intxaurrendieta, Igor Hevia, Eneko Arozana, Ariane Urrestarazu, Alain Artetxe, Markel Alonso.

Eneritz Lorza, Jurgi Arbelaiz, Aieko Retegi, Elaia Erkizia, Arhane Idoate, Markel Gil, Oihan Corral.

Eñaut Arbelaiz, Aimar Azurmendi, Iñaki Alkiza, Ainitze Zabalegi, Yuma Zapirain, Oihan Susperregi, Iker Kortajarena.



Kimetz Zuriarrain, Lara Manjarres, Iraia Ruiz, Maia Lasa, Iraitz Apezetxea, Joanes Etxeberria, Aner Goia, Ekain Telletxea, Axel Lasa, Inge Mitxelena.

Odei Brea, Paul Oyarzabal, Naroa Senperena, Garazi Elicegui, Aiora Mata, Malen Etxebeste, Mikel Lopez, Xabier Bergaretxe, Iraitz Elizegi, Igon Falero.



Enaitz Teira, Harriet Otaegi, Oier Cousillas, Elene Ruiz de Egin, Irune Solana, June Caetano, Naroa Etxebeste, Nerea Solana, Oier Elizasu, Aimar Oyarzabal.

Manex Irigoyen, Garazi Dominguez, Mikel Leonet, Andoni Aranburu, Magali Albisu, Ekiñe Portu, Haizea Goñi, Nora Fernandez.

Sara Leiza, Maddi Goenaga, Ibai Sanzberro.



Haitz Azurmendi, Oihan Huremovich, Ibon Sarabia, Adur Salvador, Maialen Mendez, Nahia Fernandez, Oihan Etxeberria, Haizea Elizegi, Xabier Herrero, Aroa Mitxelena, Oihan Aristizabal, Eneko Lizarazu.

Naia Arozamena, Nahia Echegoyen, Peru Marin, Naroa Irigoyen, Julen Epelde, Lier Bergaretxe, Izaro Benavides, Auritz Jauregi, Aritz Hevia, Aner Orbegozo.



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



BiOK
ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea · Garmendi bidea, 3 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 492 501 · Fax 943 492 501

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN
Zure Alcampo, egunero hobetuz



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065

Poligono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462

